

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure zerbitzua aurrera eraman ahal izateko, hainbat funtzio eta betebeharrak egin beharko ditugu. Atal honetan, jarduerak horiek zehaztu eta azalduko ditugu.

Bezeroak lortzeko, tailerra ematen hasi aurretik, ikastolei korreo bidez idatziko diegu. Han jakinaraziko diegu nortzuk garen, zer tailer eskaintzen dugun, zergatik izan daitekeen interesgarria ikastolentzat eta ikastoletako zuzendariari aurkezpen bat egitea proposatzea. Gmail hori erantzuten badute, mugikor bidez deituko diegu eta haiekin harremanetan jarriko gara adosteko. Gure proiektuari buruz hitz egingo dugu eta bilera bat adostuko dugu. Han aurkezpen bat egingo diegu gure zerbitzua azaltzeko eta beraiei kezka ezagutarazteko.



Zuzendariak gure tailerra onartzen badute, ikasleengana iristeko, bideo labur bat prestatuko dugu. Bideoan dena azalduko dugu, eguneroko egoerak erakutsiko dizkiegu, hala nola, kozinatzea, etxea garbitzea eta txukuntzea, edo ardurak hartzea. Bideoa gazteak identifikatzeko moduarekin egingo dugu. Gainera, tailerrean egingo ditugun jarduerak praktikoak ere azalduko dira. Bideoaren helburua, gure tailerra zer den eta zertarako egin nahi dugun azaltzea da, horrek haien interesa pizten lagunduko du eta parte hartzera animatuko ditu. Tailerraren kontratazioa zuzendariarekin adostuko dugu, baldintzak batera adostuz.

Horretarako taldekide bakoitzak zeregin bat edukiko du; bakoitzak trebetasun ezberdinak ditugunez ondo etorriko zaigu proiektua aurrera eramaterakoan, hala ere ezin izango dugu gure kabuz enpresa eraman, horretarako egongo dira funtsezko elkarteak. Bakoitzak bere eginkizuna bete beharko du eta talde bat garenez norbaitek laguntza behar badu gure artean lagunduko gara.



Hasteko, ikastoletan klaseak emateaz denok arduratuko gara. Horrela, bakoitza ikastola desberdin batera joango da, denbora hobe aprobetxatuko dugu, klase gehiago emango ditugu eta ikastola gehiagok gure zerbitzuak jasotzeko aukera izango dute.

Jarraitzeko, Ibon izango da ikastolei gure tailerrak eskaintzeko eta konbentzitzeko arduraduna. Jendearekin komunikatzeko eta harreman onak izateko erraztasun handia duenez, bere gaitasunak aprobetxatuko ditugu ikastolen interesa pizteko eta gure proposamena modu erakargarrian aurkezteko. Bere lana funtsezkoa izango da gure proiektuaren hasierako pausoak sendoak izateko.

Marina, berriz, oso abila da eskulanak eta lan praktikoak egiten. Beraz, behar ditugun maketa guztiak egiteko ardura bereganatuko du. Horrela, tailerretan erabiliko ditugun materialak eta proiektuak kalitate onekoak izango dira, eta gure proposamenak modu profesionalean aurkeztuko dizkiegu ikasleei. Bere sormen eta zehaztasun gaitasunak oso lagungarri izango dira talde osoarentzat.

Maria, aldiz, ekonomilaria da; beraz, gure irabazien kudeaketa haren ardurapean utziko dugu. Hortaz, finantzak modu egokian kudeatzea ziurtatuko du, eta gure proiektuaren iraunkortasuna bermatuko du.

Alainek ez du lan zehatzik izango baina, lehen aipatu dugun bezala, talde bat gara eta guztiok elkarri lagunduko diogu. Alainek alderdi horretan sakonduko du, eta denoi laguntzeko prest egongo da edozein momentutan.

